

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ehun ikasle inguru Europako hiriburueta abiatuko dira apirilaren hasieran Erasmus + programaren barnean

Solana kontseilariak Italia, Erresuma Batua, Irlanda, Malta, Holanda, Portugal, Finlandia, Frantzia eta Letonian egonaldiak egingo dituzten hainbat prestakuntza adarretako Lanbide-Heziketako ikasleak hartu ditu gaur

Astelehena, 2018.eko martxoak 26

Hezkuntza kontseilari María Solanak Hezkuntza Departamentuan hartu ditu gaur, Erasmus + programaren barnean datozen egunotan Europako hainbat hiriburutan egonaldiak hasiko dituzten Lanbide Heziketako 98 ikasleak. Zehazkiago esanda, ikasle hauek Italia, Erresuma Batua, Irlanda, Malta, Holanda, Portugal, Finlandia, Frantzia eta Letoniako lan-zentroetan eta prestakuntza-zentroetan jardungo dute lanean, jatorrizko ikastetxeetan jasotako ezagutzak praktikan jartzeko xedez.



María Solana kontseilariak, laugarrena ezkerretatik hasita, Erasmus programaren parte hartzen duten 98 ikasleak jaso ditu.

Solana kontseilariak esperientzia ongi profitatzen animatu ditu ikasleak, “tekniketan nahiz hizkuntzetan jaso dituzten ezaguerak aregotu eta hobetzeko aukera ekarriko baitizue, gaitasun eta trebetasun profesionalak ere hobetuz eta, oroz gain, lan-munduratzeko dituzten aukerak indartuz, Foru Komunitatean nahiz harrerako herrialdeetan”.

Lanbide-Heziketako 98 ikasleak –Goi-Mailako Gradu 50 ikasle eta Gradu Ertaineko 48– ekainaren 30a arte egongo dira helmugako herrialdeetan. Egonaldiak hiri hauetan egingo dira: Italiano Turinen (17 ikasle), Florentzian (12), Paduan (12) eta Pistoian (10); Erresuma Batuko Totnes hirian (13); Holandako Utrecht hirian (6); Finlandiako Lappeeranta hirian (1); Frantziako Arroxelan (1); Lisboan (4), Dublinen (13), Rigan (1) eta Maltan (8).

2016-2017 ikasturtean, 135 ikasleak parte hartu zuten Erasmus+ programan, jatorrizko ikastetxeetan jasotako ezaguerak ohiko ingurunearekin zerikusirik ez duten baldintza kultural eta soziolaboral desberdinetako inguruneetan hobetzeko eta praktikara eramateko aukeraz baliaturik.